

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2021-APIRILAREN 2A-427.ZENBAKIA

KARKARA



GORKA EIZMENDI

MOTORRAK BIZI DU



Haurdun daudeneztat pilates
Helduentzat aktibazio ariketak
Hipopresiboak

ZERBITZUAK:

- Osteopatia
- Fisioterapia
- Puntzio lehorra
- Kirol masajeak
- Luzaketak

Zaindu etorkizuna



Estropalari 4 · 20810 Orio
943-57 14 72 · www.lasaosteopatia.eus



KARKARA 427

2021-APIRILAREN 2A

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Errolda agiria
- 6 **Hitz tantak** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Jon Alkain
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Iñigo Gaiton
Zorioneko gertaerak
- 11 **Gutunak**
- 12 **Oroimenaren kutxa** Iñaki Iturain
Kristobal Kolon, Euskal Herrian jaioa
- 17 **Herrian galdezka**
- 18 **Erreportajea** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Arrazakeria, ezkutuko sarte
- 24 **Bazkidetza**
- 25 **Ikasleak idazle** Orioko Herri Ikastola
- 26 **Erreportajea** Iñigo Gaiton
Eskola osasungarriaren ziurtagiria jaso du Zaragueta Ikastetxeak
- 28 **Elkarrizketa** Iñigo Gaiton
Gorka Eizmendi: "Erabat pasionala da rallyetan gidatzeko dudak modua"
- 34 **Akuilua hartuta** Jokin Salsamendi
Plaza
- 35 **Nire honetan** Onintza Lete Arrieta
Imitazioa
- 37 **Moila bazterretik** Eneko Dorronsoro
Gorputza mugatzen
- 39 **Euskara** Iñaki Carretero
Euskara bihotzean
- 40 **Albiste laburrak**
- 42 **Plazan bazan**
- 44 **Zerbitzuak**
- 45 **Agenda**
- 46 **Hasi bertsotan** Joseba Pagadizabal

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.

Soreasu 1. 20730

AZPEITIA

943-83 15 27

karkara@karkara.eus

www.karkara.eus

Lehendakaria

Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta

Erredaktore taldea

Onintza Aiestaran

Onintza Lete Arrieta

Elizabete Manterola

Iñigo Gaiton

Rikardo Uzkudun

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Publizitatea

Leire Martija

Zenbaki honetako

kolaboratzaileak

Iñaki Iturain

Jokin Salsamendi

Eneko Dorronsoro

Iñaki Carretero

Banatzzaileak

Endika Ruiz (Orio)

Manex Dorronsoro (Orio)

Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-346/90

ISSN: 1132-1105

Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
udala

PUBLIZITATEA



Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.

Ubegun industria gunea, 4 AIA-ORIO
 943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)
 Fax-a: 943-89 05 62
 alustiza@autocaresalustiza.com



Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak



Lurretik
Garbiketak

SERVICIO INTEGRAL DE LIMPIEZA

- Garbiketa orokorrak
- Etxebizitzak
- Bulegoak
- Obra amaierak
- Garajeak
- Ostalaritza

Santio erreka 41, Aia-Orio
 636 18 82 92 / info@lurretik.es

edaritegia **Antilla** *jateetxea*

Abeslari kalea, 2
 ORIO
 943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitaratekoak

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



arkaitz taberna
 ●●● uio ●●●

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrenekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57



Zerbitzu teknikoak
 24 ordu

fontana
 iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta duxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28



azkue
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
 AIA-ORIO
 943-83 51 86

BODEGAS

Gailur

01307 BANCOS de EBRO
 Tel./Fax: 943 40 91 58
 www.bodega-gailur.com

Arabar Errioxa

ZUDUGARAI



Gabriel's Tradición
 RESTAURACIÓN DE ORIGEN

Tel.: 943-83 03 86 · Fax-e: 943-83 59 52
 txakolizudugarai@euskalnet.net - www.txakolizudugarai.com

Errolda agiria



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Martxoaren 18an Tarana Karim ekintzaile feminista eta musulmanak hitzaldia eman zuen Arraunetxan, eta kalean entzun nuen adineko emakume bat minduta beste bati esaten: "Hitzaldia zergatik? Orion, arrazistak al gaitun ba?". Ez dakit aurrean zuenak zer erantzun zion, baina BAI borobila merezi zuen bueltan. Eta horrekin ez dut esan nahi gu besteak baino okerragoak garenik, ezta gutxiagorik ere, baina, oraindik ere barruraino sartuta ditugu kolonialismo garaitik datozen hainbat sinesmen, eta horiek eragina dute gure eguneroko portaeran. Agian, zenbaitek pentsatuko dute alderdi ultraeskuindarrek migranteen aurka helarazten dituzten mezuak soilik direla arrazismoa, baina hortik harago, arrazakeria oso sotila izan daiteke, uste oker eta aurreiritziz osatua baitago.

Martxoaren 21ean Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen, eta euskal hiriburuetan mobilizazioak antolatu zituzten pertsona arrazializatuek jasaten duten bazterkeria salatzeke. Bilbokoan, migratzaileek etxebizitza alokatzeko jasaten duten arrazakeria azpimarratu zuten. Hain zuzen ere, gai hori hizpide izan zuten Orioko hitzaldian. Alokairuarena, esaterako, arazo larria da herrian. Oraintxe bertan, alokatzeko etxe bila dabilzan bi familia ezagutzen ditut; etsita daude, laster etxerik gabe geratzeko direla jakinda, irtenbiderik aurkitzen ez dutelako. Zer sentituko genuke guk haur txikiak edukita, kale gorrian geratzeko arriskuan egongo bagina? Egoera latza da, eta gehienek ez dakite nora jo laguntza eske. Ez dira kasu isolatuak, ordea, asko direlako estuasun hori sentitu duten familia etorkinak, baina erakundeek ez diote irtenbiderik ematen arazoari... Xelebrea da egoera: 'integratzeko' eskatzen zaie jatorri desberdinetako herritarrei, baina, era berean, oinarrizko eskubideak ukatzen zaizkie; baita horretarako lanpostu segurua eta beharrezko diru sarrerak badituzte ere. Zenbaitek azkar erantzungo didate esanez bertakoontzat ere zaila dela alokatzeko pisua aurkitzea, eta arrazoi osoa dute, baina ahoskera entzunda bakarrik bertakoa ez zarela antzematen denean, etxebizitza alokatzeko aukerak asko murrizten dira.

Migrante askok, esaterako, direnak eta ez direnak egin behar izaten dituzte errolda agiri bat lortzeko, behar-beharrezkoa baita oinarrizko eskubideak izateko. Errolda agiria behar da, esaterako, Osakidetzako txartela izateko, gizarte laguntzak jasotzeko eskubidea izateko, paperak legezatzeko edo familia ekarri ahal izateko.

Argi dago etxebizitzaren gaia ez dela arazo hutsala. Esan daiteke etxebizitzak bere horretan ez duela bermatzen integrazioa, baina ezinbestekoa da gizarte bazterketari irtenbidea eman eta bizimodu duina eraiki ahal izateko. ■■■

**ERROLDATUTA EGOTEA
EZINBESTEKOA DA
OINARRIZKO
ESKUBIDEAK IZATEKO**

Jon Alkain

TESTUA: AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

ARGAZKIA: INIGO GAITON

Jon Alkain Urdangarinek (Aia, 1998) lau urtez moda diseinua ikasi zuen Bartzelonan, eta orain etxera itzuli da bere marka berria martxan jartzeko asmoz. Apirilaren 19tik 23ra, esaterako, erakusketa zabalduko du Orioko Kultur Etxean, Goiuri Unanue diseinatzailearekin batera.

Nola sortu zitzaizuen erakusketa sortzeko ideia?

Orioko Herri Ikastolako ikasle ohiak gara biok, eta gurekin harremanetan jarri ziren, ikasleentzat ezezagunak diren ikasketak badaudela erakutsi nahi dietelako, hain zuzen sormenarekin eta kulturarekin lotutakoak. Guk moda ikasi genuenez, erakusketa bat sortzea bururatu zitzaigun, moda munduaren bi alderdiak erakusteko: pasareletako sormena, eta herritarrei zuzendutako jantziak. Izan ere, pasareletan edo erakusketetan aurkezten diren lan arraro eta berezien helburua izaten da diseinatzailearen sormena erakustea. Salmentan jartzen diren jantziak, berriz, diseinu bereziak izan arren, egunerokoan erabilzeko direnez, funtzionalagoak izaten dira. Gure lana erakusteko arropa jarriko dugu ikusgai eta, horrez gain, zuzenean, bozeto edo marrazkiak nola egiten ditugun ere erakutsiko dugu. Gainera, herritarrek esperimintatzeko aukera ere izango dute bertan.

Garrantzitsua izango da norbere lana erakusketa batean aurkezteko aukera edukitzea, ezta?

Euskal Herrian beti gustatu izan zaigu ondo janztea, baina moda mundua nahiko ezezaguna da oraindik. Jendeak ez daki jantzi bat sortzeko zer nolako lana egin behar den aurretik; uste dute oihal bat hartu eta jostearekin nahikoa dela. Prozesu luzea da, ordea. Garrantzitsua iruditzen zait jendea lan horren konplexutasunaz jabetzea.

Prozesu horretan ba al dago bereziki gustuko duzun faserik?

Prozesu guztia atsegin dut, baina zerbait aipatzekotan patroigintza eta jostaketa nabarmenduko nituzke. Diseinatzea asko gustatzen zait, baina oihalak eskala errealean moztu eta josten hasten zarenean ikusten duzu

benetan jantzi hori nola geratuko den. Askotan paperean egiten den diseinua aldatu egiten da behin josten hasitakoan, papereko marrazkian dena geratzen delako ondo. Ideia horri forma ematen hasten garenean, ordea, paperean ikusten ez diren xehetasunak eta akatsak antzeman daitezke.

Oihalek garrantzia al dute sorkuntza prozesu horretan?

Oso garrantzitsua da oihalen ezaugarriak ezagutzea. Oihal mota desberdinak daude; batzuek gorputz edo estruktura handiagoa dute, eta beste batzuk arinagoak dira eta erortzeko erraztasuna dute. Horregatik, jantzi edo osagarri bat diseinatzerakoan ondo aukeratu behar da erabili nahi den materiala, bestela ezinezkoa delako nahi den efektua lortzea. Palazzo galtza zabalek, esaterako, mugimendua eduki behar dute, eta estruktura handia duen oihal batekin egiten bada, oso zurrunik geratzen dira. Crepe edo gasa batek, berriz, behar duen mugimendua ematen die prakei.

Moda arloa oso zabala da. Zuk zer esparru aukeratu duzu?

Nik gizon zein emakumeek jantzi dezaketen arropan sinesten dut. Bakoitzak nahi duena jantzi dezakeela aldarrikatzen dut, genero estereotipoetatik harago. Filosofia hau sare sozialetan zabaltzen ari da pixkanaka, eta kaleko jendearen artean ere onarpen ona izaten ari da. Generorik gabeko arropa diseinatzeaz gain, ni neu ere horrela janzten naiz, eta erantzun positiboak izan ditut gazte zein helduen artean.

Zer asmo dituzu etorkizunari begira?

Nire asmoa da moda arloa jorratzen duten beste hiriburu batzuetan bizitzea, Berlinen edo Dublinen, esaterako. Asko dut ikasteko oraindik, eta moda enpresetan lan egin nahi nuke teknika eta prozedura desberdinak ezagutzeko. Izan ere, moda mundua etengabeko berrikuntza eta ikaskuntza gisa ulertzen dut nik. Hala ere, moda etxetan lan egiten dudana bitartean, gustatuko litzaidake neure marka edo filosofia sustatzea, fast fashion edo moda azkarretik ihes egiteko. ■■■



Zorioneko gertaerak

ARGAZKIA ETA TESTUA: IÑIGO GAITON

Martin Fowles ingelesarekin harremana egiteko aukera izan nuen abenduan, KARKARAn egindako erreportaje baten harira. Martinek saldu zizkion lehen surf taulak Ramon Esnal, *Etxeberri*-ri, 1960eko hamarkada bukaeran Oriora egindako aurrenekotako bidaia batean. Hondartza zaharreko kontuen gaineko jakin-minak bultzatuta, e-maila jarri nion ingelesari, neure burua aurkeztuz eta berarengana zergatik jotzen nuen azalduz. Bada, elkarri e-mail batzuk bidali eta gero, gutun-azal bat ekarri dit postariak aste honetan. Barruan, Martinen argazki artxibo digitala biltzen duen disko bat. Hori gutxi balitz, nire eskariari ahalik eta modu zabalenean erantzun nahian, idatzizko kontakizun mardul bat egiteko tartea ere hartu du, gure hondartzarekin, surfarekin, eta orduko giroarekin izandako bere harremana azalduz. Esker oneko hitzekin motz geratuko nintzateke, izan duen gizatasuna eta eskuzabaltasuna aitortzeko. Irudian, Martin bera, Orioko kanpinean surf taulari parafina ematen. ■





PUBLIZITATEA

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudarien kalea, 44
943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
Arizaga kalea
943-83 05 37

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09

IGLESIAS SARRILAGILEAK



iglesiascerrajeros@yahoo.es
www.iglesiascerrajeros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com

Joseba
AROTEGIA · CARPINTERIA



687 683 427
josebaarotza@gmail.com

ATEAK
ZOKALOK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
AROTEGIA OROKORREAN

ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03

KAÏOA



kaioa_denda
www.kaioa.es

Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

PIZZERIA KALETA

%100 etxean egina




Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

K·U·K·U·A·R·R·I
ELEKTRIZITATEA

943-10 01 81 · 640 28 13 08
Zigordia, 52 behea C · ZARAUTZ
kukuurri@kukuurri.com

LASTER DESATASCOS



- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodiien garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com

24orduz 688 88 65 36 (Larrialdiak)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

100 urte aiarren zerbitzura

AIAKO LUR ALKARTASUNA KOOPERATIBAKO ZUZENDARITZA BATZORDEA

1921. urtean sortu zen Alkartasuna Kooperatiba izenarekin, aiarrei beharrezko zituzten lehengaia eskainiz, bertako ekonomia sustatzeko helburuarekin. Gerra ondorengo urteak igaro eta gero, gaur egungo Lur-Alkartasuna Kooperatiba izena hartu zuen, baina duela mende bat zituen helburuei eustsi die.

Kooperatiba herritarrek osatzen dugu, eta egun 210 familia-bazkidek bat egiten dugu helburuarekin.

Mende luze batean gora-behera handiak izan dira, baina Kooperatibako kideek beti ideiak argi izan ditugu, ezinbesteko zerbitzua ematen duelako Kooperatibak gurea bezalako herri txiki batean; asteko zazpi egunetan irekiz, gure etxeetako zati bat izatea lortu du.

Egoera berrietara egokitzen saiatu gara, bai espazioari dagokionez, bai zerbitzu eskaintzari dagokionez; beti

EZINBESTEKO ZERBITZUA EMATEN DU KOOPERATIBAK GUREA BEZALAKO HERRI TXIKI BATEAN



2016ko ekainean inauguratu zuten Kooperatibaren denda berria.

herritarren behar berriei erantzunez, jarduera bi gunetan banatuz:

1) Lur Alkartasuna Supermerkatua: guztiz hornitutako denda, paketeria zerbitzua eta aparkaleku erosoarekin.

2) Lur Alkartasuna Biltegia: erregai zerbitzuak, burdindegia, baserri eta etxeko produktuak, paketeria zerbitzua...

Kooperatibarentzat etorkizuna beti izan da helburu, eta horren adierazle dira azken bost urteetan eginiko inbertsio eta lanak: Lur Alkartasuna Biltegia espazio berriak egokitu eta handitu dira eta Lur Alkartasuna denda berria ireki da.

Hala ere, mende batean zehar gure indar nagusia herritarrek izan dira, langileak (hurbileko tratua eskainiz) eta zuzendaritzan parte hartu izan duten hainbat bazkide. Bereziki bat aipatzekotan Gabino Alustiza nabarmendu nahi

genuke. Errepublikara garaiaren alkate izatera iritsi zen eta bera izan zen proiektu honetan sinestu eta Kooperatiba bultzatu zuen herritarrik esanguratsuenak.

Bukatzeke ezin dugu ahaztu beti gure alboan izan dugun Udalaren laguntza ere, ekonomikoki zein zalantzak eta laguntzak bideratu eta aholkuak emateko garaietan.

Mende bat igaro dugu, baina beste mende bat igarotzeko prest gaude, beti ere gure bazkide eta herritarren beharrei erantzuteko moduan garen bitartean. Bejondeizuela. ■■■

JAIOBERRIAK

- **Walid Laassiri.** Orion, martxoaren 1ean.
- **Alaia Indo Arriola.** Orion, martxoaren 5ean.
- **Elara Bordagaray Zuriarrain.** Orion, martxoaren 8an.
- **Lier Jauregi Oneca.** Orion, martxoaren 11an.

HILDAKOAK

- **Martin Iruretagoiena Urbiet.** Aian, otsailaren 25ean. 89 urte.
- **Eugenio Zaldua Albizu.** Orion, otsailaren 27an. 84 urte.
- **Juan Juaristi Larrañaga.** Orion, martxoaren 7an. 73 urte.
- **Josefa Iparragirre Odriozola.** Aian, martxoaren 21ean. 87 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARA**ra bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Kristobal Kolon, Euskal Herrian jaioa



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

Jose Mari Ertzilla Orion jaioa da, tren geltoki ondoko Ertzillaneko etxean. Zarautzen bizi da aspaldi, mediku-dentista izan da ogibidez orain dela urte batzuk erretiroa hartu zuen arte. Historia zalea da eta, azken urteotan, alor hori lantzen eman ditu bere denbora eta ahaleginak. Gai batek motibatu du aspaldi honetan: 1492an Ameriketara iritsi zen Kristobal Kolonen jatorriak, kontinente hura deskubritu zuen Mendebaldeko lehenengo nabigatzailearenak. Jose Mariren ustez, Kolon Ipar Euskal Herrian jaio zen 1446an. Ertzillak dioenez, Orio ere ezagutzen zuen Kristobalek, eta herriko etxe eta toki batzuen izenek horixe erakusten dute. Gai hori ikertzen dabil, eta hari asko lotu ditu bere hipotesia indartzeko.

Historialarien artean zalantza handiak izan dituzte beti Kolonen jatorria azaltzeko orduan. Badira diotenak Italiako Genovan jaio zela, baina badira esaten dutenak katalana, galiziarra, mallorcarra edo portugesa zela. Kolonen jaiotze lekuak misterioa izaten segitzen du.

Jose Mari Ertzillak liburu bat idatzia du, bere ikerketaren

berri ematen duena, oraingoz argitaratu gabea. Erreportaje honetara ekarri nahi izan ditugu Ertzillaren liburuko hipotesiaren alderdi esanguratsuenak, Kristobal Kolon Euskal Herrian jaio zela demostratzeko idatziak.

Kolon, ezkutuko agote itsasgizona

Kristobal Kolon Baigorriko konderriko Ainza herrian jaio omen zen (gaur egun, Ainhize-Monjolose), 1446an, Colom etxean, Nafarroako Erresumako seigarren merindadean. Bernat Colom izeneko herritar bat agertzen da Ainhizeko 1413ko erroldan; seguru asko, Kristobalen aita.

Kolon kasta okzitaniar bateko ondorengoa da, Oztibarreko lurretara etorritako familia baten baitan jaioa, Frantziako hiru Donejakue bideek bat

egiten duten eskualdean. Kristobal familia gaskoi apal bateko semea omen zen, ez zen noblea; eta ezkutatu egiten zuen bere jatorria, oro har Oztibarre eta Bearno inguruko biztanleek egin ohi zuten bezala, hangoak herejetzat eta agotetzat jotzen zituztelako, gutxietsitako eta baztertutako kasta bateko kide. Arrazoi horregatik Kolonen biografian ez da batere garbi azaltzen haren jaiotzaren eta haurtzaroaren berri. Dena iluna da oso. Eta iluntasun eta zehaztasun falta horrek ekarri du Kolonen jatorria interpretazio askotarikoa izatea.

Kolonen garaian *bizkaitar* esaten zitzairen euskaldunei. Kolon bizkaitarra zela dio Guillen Tato kapitainak, adieraziz Kolonen hizkerak Baionako itsasoaren kutsua zuela. Baita Espainiako Historiako Akademiak ere, aipatuz Kolon euskal marinela bezala janzen zela. Medinaceliko Dukeak ere horixe dio, Kolon bi urtez bere jauregian hartu zuenak. Horixe bera adierazten du almirantearen gaztelaniaz hitz egiteko modu ez oso akademikoak: euskal kutsuko hitzak erabiltzen zituen, *agur*, *grisketa*, *makalas*, *berriqueras*; eta gaztelaniaz ondo ez dakiten

KRISTOBAL KOLON BAIGORRIKO KONDEARRIKO AINZA HERRIAN JAI O MEN ZEN

euskaldunek egin ohi duten bezala, izenen artikulua nahasten zuten: *el nariz, la color, el Andaluçia*... Baita Kolonek Ameriketara zenbait lekuri emandako izen toponimikoek ere: *Kaiku irlak, laguna, mocha, barria, barrukoa, ainza*... Ainza Kolonen jaioterria zen, herri txiki-txikia, eta berak beste inork ezin zion izen hori eman kontinente berriko toki bati. Kolonek bere eskifaietarako aukeratutako horrenbeste euskaldunek ere horixe erakusten dute. Eta, jakina, bere bidaietako itsasontzien izenek: Mari Galant, Santa Maria de Guia eta La Vizcaina; eta, azkenik, orduko pilotu eta marinel euskaldun askok ere bai.

Euskal Herriko Oztibarre eskualdean jaiotako biztanle gehienak herejeak eta agoteak ziren. Kolon han sortua da, hara joandako familia gaskoi baten baitan. Nafarroako seigarren Merindadeko armari zaharrak ikus daitezke Lemovicensis-Vezelay izeneko Donejakue bidean: Borgoina, Auvernia (Beaujolais), Dordoina, Lot-Garonne eta Akitania itsastarrekoak, Landetatik Deux-Sevres-Rochelleraino. Hortik datoz Colom-tarrak. Horregatik zuten, agoteek bezala, Kaukasoko jatorria duen



Jose Mari Ertzilla, Orioko Kolon Txiki etxearen aurrean. IÑIGO GAITON



Goiko Kaleko antzinako etxeen atarian JHS ageri da: Jesus Hominum Salvator. Honetan, Kolonen karabela bat.. IÑIGO GAITON

HLA-B27 antigenoa, artritis erreumatikoa eta ankilopoietikoa dakartzana, Reiter sindromearekin batera.

Okzitanian oso ugaria zen antigeno hori, Galizian, Mediterraneoan eta Genovan ez bezala. Almirantearen jatorria

Genovakoa dela guztiz ezeztatua geratzen da azterketa forentse genetikoetan eta bestelako datu historikoetan oinarrituta.

Kristobal Kolonen anaia Bartolome kartografoak Ingalaterrako errege Enrike VII. ari erakutsi zizkion mapa kartografikoak honela sinatuta agertzen dira, latinez: “Pro autore sive picture: janua cui patria est, nomen cui Bartolomeus Columbus de Terra Rubra, opus edit istut londonis...”. Janua Donibane Garazi da (Saint Jean de Pie de Port) eta Terra Rubra (Roja), berriz, Baigorriko bizkonderria da. Eta Ainhize lurralde haren baitakoa zen 1446an (orduan, Ainza). Kolon Ameriketatik itzuli eta Gaztelako errege-erreginek ohore egiteko zer armari zuen galdetuta, familia apalekoa izanda armarririk ez zuenez, Kristobalek Iholdi herriarena hartu zuen beretzat.



Kolonen jatorria eta haurtzaroa oso ilunak dira historian. Herrialde askok aldarrikatu du Kolonen jaiolekua.



Kolonek 1492an lehenengo irlari San Salvador izena eman zion.

Kristobal Kolon eta Orio

Antso VI.a Jakituna Nafarroako erregeak 1180an Donostiari eman zion Foruaren eremuaren baitan zeuden Orioko lurak. Ondorengo mendeetan sortu zen arrantzale herrira Pirinioz gaindiko nafar eta gaskoi asko etorri ziren, baita inguruko herrietara ere: Usurbil, Aia, Getaria...

Orio sortu zenean herriak zituen bi kaleetan, Goiko Kaleko bietan, orduko etxe guztiek dute JHS inskripzioa: Jesus Hominum Salvator, harrian zizelkatuta, etxearen kaleko ate gainean, oraindik ere. Etxe atariko ikur erlijioso hori Nafarroa Behereko herrietako ezaugarria da, eta gaskoientzat garrantzia handiko ikurra. Ba, hara, Kolonek San Salvador izena jarri zion 1492ko urriaren 12an topatu zuen irlari, Ameriketako lurra lehenengo aldiz jo zuenean.

Orion ezagunak diren hainbat abizen Nafarroa Beherea aldeko herrietakoak dira jatorriz: Mitxelena, Intxauspe, Kamino, Agote, Indo, Urdaire, Ainziarena, Larrunenea, Aranibar...; eta hainbat toponimo ere bai: Aizperro, Mirandaburu, Salatxo, Saria, Luxaber, Udaenea, Gallaberro...

Orion Kolonen herrikoak ere jarri ziren bizitzen; horrexegatik

ORION EZAGUNAK DIREN HAINBAT ABIZEN NAFARROA BEHERA ALDEKO HERRIETAKOAK DIRA



Ertzillaren ustez Kolon jaio zen Baxe Nafarroako Ainhize herriko eliza.

etorri zen Micheloto kortsarioa, Kristobalen senidea bera, Oriora babestera Normandia aldeko itsasoan 31 marinela bretoiari lepoa moztu eta gero.

Oriotar askoren galdera izan da beti Kolon Txiki etxearen izena nondik ote datorren. Orioko historian balea-arrantzale eta ontzigile bezala agertzen den Miranda eta Beltran familiarena zen etxe hori. Miranda-Beltrandarrak ere Nafarroa Behereko herrietatik etorriak ziren Oriora, Micheloto eta Kolon bezala. Nafarroako erroldetan agertzen dira abizen horiek denak. Leozeko beltrandarrek Kolonen armari berbera dute; eta mirandatarren armarriko arranoa Panamako Kolon probintziaren armari berbera da. Orioko Beltran-Mirandatarrek harreman estua zuten Kolonekin eta herrian eraiki zuten etxeak Kolon Txiki izena jaso zuen, eta sekulako armaria eman zioten etxeari.

Luis Luciano Bonaparte bidaiari eta filologo frantsesa

bost aldiz izan zen Euskal Herrian euskararen dialektoak aztertzen. Bonapartek Orioko euskara Hernanikoaren eremuan kokatu zuen, baina ezaugarri batekin: Orion Nafarroa Behereko hitz eta esamolde askoren arrastoa zegoela. Kolon euskal marinelez inguratuta ibili zen Amerikarako itsasaldietan. Oso ondo ezagutzen zituen euskal kostaldeko herriak: Hondarribia, Pasaia, Orio...

Jose Antonio Lorente Acosta doktore genetista aditua da antzinako pertsonaia historikoen jatorria argitzen, haien gorpuzkien DNA (ADN) aztertuz. Azken bolada honetan hark zuzendutako talde batek Sevillako katedralean hilobiratuta dagoen Kolonen hezurren DNA aztertzen dihardu. Jose Mari Ertzillak badu esperantza ikerketa lerro horrek baieztatuko duela berak darabilen hipotesia: Kolon Euskal Herrian jaio zela. Horren zain dago, eta ikerketaren emaitza laster batean argitaratuko omen da. ■■■



Katu Horia
albaitaritzza klinika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia:
668891129



kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47



Lizaso
Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 • ORIO • 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com

Eusko gudariak, 35 • ORIO
(sarrera Arrantzale kaleetik)




Ordo elikatuz Bizi




MARIJO

ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 beheka • ORIO
943-13 47 29



niko
taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 • 20810 Orio • Egin erreserba 943-53 61 27

MENDIZABAL
AROTZEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea • AIA-ORIO
943-83 11 75 • 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 beheka
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com



narau
school & translations

www.narau-school.com

Eusko Gudari 29 - ORIO
943-83 11 16
648 97 64 70
info@narau-school.com

PAKO IMAZ



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 • 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com • ORIO

Orio Arraunketa Elkarateak logotipo berria du. Zer iruditzen zaizu aldaketa?



LIBANA TABOADA

Nire aurreneko inpresioaren arabera, iruditzen zait grazia pixka bat kendu diotela. Oraingoa minimalistagoa da, finagoa, eta egokia ikusten dut enpresa edo erakunde batentzat. Arraun talde batentzat, ordea, txispa gutxi duela iruditzen zait. Nire iritziz, ez dute asmatu kolorea kenduta, arraun taldeak koloreekin asko identifikatzen ditugulako. Gero, borobilagoa egin izanarena ondo ikusten dut, eta euskara hutsean jartzearena ideia oso ona iruditzen zait. Dena den, normala ere bada hasieran logo berriak grazia gehiegirik ere ez egitea; begia zerbaitera ohituta daukazunean, aldaketetara ohitzea kostatu egiten da, baina ohituko gara berrira ere.



JOSU INDO

Logotipoa bera nahikoa soila iruditu zait, eta berdin balio dezake arraun, futbol edo eskubaloi talde bat ordezkatzeko. Faltan botatzen ditut arraunak, nik nabarmen ikusteko moduan jarriko nituzke. Koloreari dagokionez, hori gehiago izatea gustatuko litzaidake, kolore horrekin sentitzen dugun identifikazioagatik. Logotipo zaharrarekin lotura sentimental estua dut, eta ziurrenik, horrek asko baldintzatuko du berriarekiko dudak ikuspegia. Orain elkartetik kanpo nago, eta pentsatzen dut marketin edo komunikazio ikuspegitik hobea izango dela logotipo berria, eta hori ere errespetatu behar da, egin duten diseinatzaileak profesionalak direlako. Haiek jakingo dute zer den elkarereantzat onena.



IÑAKI GURRUTXAGA

Ikusitako lehen momentutik gustatu zait logotipo berria. Simplea eta garbia da, eta dena borobilean jarrita, polita ikusten dut. Tradizioarekin ere badu lotura, mirotza hor mantendu izanak iraganarekin lotzen duelako. Arraunarekin harremanik ez duen kanpotar bati, agian, kostatuko zaio logotipo berria arraunarekin lotzea, baina herrikoak garenok, mirotza traineru horiekin identifikatzen dugu. Euskara hutsean jarri izana oso ondo iruditzen zait, eta hori elkarte barrutik atera den iniziatiba izan bada, bere balioa eman behar zaio. Grafikoki aldaketa txikia da CRO inzialak kendu izana, baina ideologikoki indar handiagoa du. ■■■

Arrazakeria, ezkutuko sarea

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen martxoaren 21a eta egun batzuk lehenago, martxoaren 18an, Tarana Karim ekintzaile musulman eta feministak hitzaldia eman zuen Arraunetxan, Ahduntze Eskolak antolatuta. Gizartean isilpean gordetzen den arrazakeriaz aritu zen jendaurrean, hainbat mito irauliz. Karimek esandakoak oinarri hartuta, Orioko hainbat emakume migratzaileekin hitz egin du KARKARAK euren bizipen eta iritziak ezagutzeko.

Testua eta argazkiak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta.**

Euskal Herrian ez gara arrazistak!” baieztapena askotan entzun ohi dute bestelako jatorri, etnia edo erlijioetakoak diren herritarrek, baina, bestelako bazterketekin gertatzen den bezala, bereizketa hori ere baztertua denak soilik senti dezake. Horregatik, Tarana Karim ekintzaileak uste du “euskal gizartea berandu” dabilela arrazakeriaren gaia lantzen. “Arrazismoaz eta xenofobiaz aspalditik jardun behar genuke. Gaia lantzen da etorkinen kolektiboetan nahiz arlo horretan lan egiten duten eragileen artean, baina uste dut bertako jende askok beste aldera begiratzen duela, ez duelako errealitatea ikusi nahi. Horren aurrean, arraza bazterkeria bizi dugun pertsonok lehen pertsonan hitz egiten hasi gara, eta espazio publikoetan parte hartzeko ahalegina egin behar dugu egoera salatzeko”. Hala, gizartean arrazakeria eta xenofobia badagoela erakustea behar-beharrezkoa dela uste dute etorkinen kolektiboek, bertako herritarrek gaiaz sentsibilizatzeko, eta ohartarazteko askotan gizarteak erreproduzitzen dituen jarrera eta iritzi edo legeak menderatzaileak eta arrazistak direla.

Karimen iritziak, Espainiako Atzeritarren Legea bera da etorkinak baztertzen dituen lehena, oztopo eta muga asko jartzen dizkielako bizitza duina eraiki ahal izateko: “Migratzaile asko agiririk gabe bizi dira, horiek lortzeko baldintzak betetzea oso zaila izaten delako kasu askotan. Beste batzuek, berriz, paperak legeztatuta eduki arren, familia ekartzeko arazoak izaten dituzte”, azaldu zuen. Orion bizi den Analia Torres argentinarrak lehen pertsonan sufritu zuen Atzeritarren Legearen pisua. “Nire ama alargun geratu zen, eta Argentinatik Bartzelonara joan ginen bizitzera familiarekin, lan aukera berrien bila. Ni adinez nagusia nintzenez, ezin izan genituen

nire paperak legeztatu familia berrelkartzeagatik. Egun batetik bestera nire bizitza guztiz aldatu zen. Oso urte gogorak izan ziren. Alde batetik, nire bizitza osoa atzean utzi behar izan nuen: jaioterria, lagunak, unibertsitatea eta etorkizunerako nituen asmoak eta ametsak... Eta paperik gabeko etorkina bihurtu nintzen; hori izan zen gogorrena. Bestetik, hemen bizi ahal izateko diru sarrera handiagoak behar genituen etxean, eta nire ahizpak oraindik adingabeak zirenez, lanean hasi nintzen, nire ikasketak betirako alde batera utzita”. Lehen urteak paperik gabe pasa zituen Torresek, norbaitek lan kontratua egin zion arte. “Gizartearen parte ez nintzela sentitzen nuen, baztertuta nengoela”, adierazi du.



Lanpostu duina

Arraunetxeko hitzaldian parte hartu zuen Silvia Carrizo Urola Kostako emakume migranteen Malen Etxea elkarteko abokatuak ere, eta Atzerritarren Legearen inguruko xehetasunak eman ditu. “Atzerritarren Legeak behartzen ditu etorkinak Espainian hiru urtez paperik gabe bizitzera eta erroldatuta egotera, eta epe hori pasatakoan legeztatu dezakete beren egoera. Dena dela, horretarako gutxienez urtebeteko iraupena eta astean 40 orduko lanaldia duen kontratua aurkeztu behar dute, eta hori gutxi balitz, enplegatzaileak ezin du zorrik eduki Ogasunarekin. Gaur egun baldintza horiek betetzea ia ezinezkoa da, eta jende asko dago behartuta paperik gabe bizitzera, horrek sortzen duen babesgabetasun egoerarekin. Izan ere, paperik ez duenak ez du eskubiderik legearen aurrean, eta emakume asko esklabutza baldintzetan lanean ari dira adinekoak zaintzen; batzuei ez diete uzten egunean bi orduz etxetik ateratzen ere”. XXI. mendean hori gertatzea “onartezina” dela deritzo Carrizok, eta salatu du erakundeak horren jakitun direla. “Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntzak ematen dizkie familiei langileak kontratatatu ditzaten adinekoak zaintzeko, baina inork ez du horien jarraipenik egiten; alegia, ez dute ikuskatzen lan baldintza duinak betetzen diren”.

Bizirautea bermatzen duen lanpostu duina lortzea oso zaila izan ohi da migratzaileentzat. Alde batetik, beren jatorriko herrialdean ikasketak izan arren, “ia ezinezkoa” delako horiek Espainiko sistemaren arabera legeztatzea. Tarana Karimek berak bizitako

Tarana Karim aktibista Azerbaijanen jaiotzen eta Tolosan bizi da gaur egun.



30 lagun inguru bildu ziren Arrazakeriaren inguruko hitzaldian.

gurutzeari jarri zuten adibidetzat hitzaldian. “Ni Zuzenbidean lizentziatu nintzen Azerbaijanen, baina ezinezkoa izan zait nire ikasketak homologatzea hemen lan egin ahal izateko. Zortzi urtez saiatu nintzen horretan, baina lortu ezin nituen paper mordoak eskatzen zizkidaten: bat lortzen nuenerako bestea irautitzen zitzaidan... Etsipenak jota bukatu nuen, eta, azkenean, erabaki nuen amore ematea eta beste zerbaitetan lan egitea familia aurrera atera ahal izateko, frustazio handia sortzen zidalako egoerak”, adierazi zuen. Karimena ez da

kasu isolatua, ordea, jatorriko herrialdean goi mailako ikasketak dituzten gizon eta emakume asko ari baitira lanean formaziorik eskatzen ez duten lanpostuetan.

Ikasketak homologatzeko zailtasunak izateaz gain, askotan lan arloan etorkinen gaitasunak ere zalantzan jartzen direla salatzen dute migratzaile askok, enplegu horietarako behar dena baino formazio zabalagoa eduki arren. “Zorionez, egunez egun, erakusten dugu lanerako edo gizartearen parte hartzeko gaitasuna badugula, baina oraindik ere kostatzen zaigu erabakiguneetara iristea”. Ohitura horien atzean mendebaldean zabaldua dagoen jarrera menderatzailea dagoela uste du azerbaijandarrak. “Bertako askok pentsatzen dute bertakoak direlako etorkinek baino gehiago dakitela eta beren ohiturak eta iritziak direla zuzenak, eta kanpotik etorri dena oker dabilela. Badirudi orain arte izan dugun bizimodutik eta gure herrialdeetan jasaten ditugun zapalkuntzetatik salbatu nahi gaituztela, hemen zapalkuntzarik egongo ez balitz bezala”. Hala, jarrera menderatzaile horren atzean sentimendu koloniala dagoela iritzi dio Karimek; hau da, “europarrak arlo guztietan gainontzekoak baino hobek” direnaren ustea.

Etxebizitza oinarritzko eskubidea

Orion bizi diren etorkinek askotan salatzen dute alokairuan etxebizitza aurkitzea gero eta zailagoa dela, eta zenbait etxejabeek aitortzen dute, gainera, ez dietela etxea migratzaileei alokatu nahi; beste batzuek, berriz, kontraturik gabe alokatzen diete etxebizitza, eta ez diete uzten bertan erroldatzen. “Bitan aldatu gara etxez, eta etxe bila genbiltzan batean, iragarki batean etxea alokagai zuen herritar bati deitu genion. Guri esan zigun etxea dagoeneko alokatuta zegoela. Nire koinatu euskaldunak ere deitu zuen, guk dagoeneko hots egin genuela jakin gabe, eta hari esan zioten etxea ikustera pasa zitekeela. Haserre bizian jarri nintzen, eta berriz deitu nion etxejabeari gertatu zena salatuz. Barkamena eskatu zidan, baina argi eta garbi esan zidan hemengo jendea nahi zuela”.

Gertatutakoak “min handia” eman ziola aitortu du Analia Torresek. “Hemen jaioa ez banaiz ere, niri bizitza proiektua hemen egin nahi dut, eta niri seme-alabak hemengoak dira. Horrelako gauzak gertatzen zaizkidanean, Argentinan atzean utzi nuen bizitzaz pentsatzen dut, eta iruditzen zait film batean nagoela eta aurretik bizi nuen hori ez zela inoiz existitu. Oso une gogorak izaten dira, bidegabekeriaren aurrean salduta eta babesik gabe sentitzen zarelako. Dena dela, horrelako egoerak bizitzaren ikasbide direla pentsatzen saiatzen naiz”.

Ndeye Awa Diop emakume senegaldarrak (asmatutako izena da) ere Orion alokatzeko etxe bila zebilenean bizitakoa salatu du: “Etxebizitzaz aldatu ginen, aurreko alokairua amaitu zitzaigulako, eta Alde Zaharreko etxebizitza bat alokatu genuen 600 eurotan. Sartu ginenean ohartu ginen hainbat etxetresna ez zebiltzala, eta etxejabeari horiek aldatzeko eskatu genionean, esan zigun etxe *pateratan* bizitzera ohituta egonik, nolatan bururatzen zitzaigun kezak; ez zigula ezer aldatuko. Hiru egun egin genituen etxebizitza hartan, eta segituan aldatu egin ginen, hozkailua eta garbigailua ez zebiltzalako. Zorionez, lortu genuen egoera onean zegoen etxebizitza bat alokatzea. Zortzi urte daramatzagu bertan”.

Buruko zapia

Zenbait emakume musulmanek buruan janzten duten zapiak ere zeresana eman ohi du gizartean, eta Orion egin zuten hitzaldian eztabaida sortu zuen. Tarana Karim aktibistak azaldu zuen zapia janzten hasi zen unetik herritar askok berarekiko zuten jarrera aldatu egin zela. Erantzun horren atzean, mendebaldeko politikariek Islamaren inguruan eraiki duten irudia dagoela uste du Karimek. “Islama matxista eta giza eskubideen aurkakoa dela diote, baina ez da egia. Mendebaldeak sortu duen eraikuntza kultural bat da, eta gizarte osoak sinetsi egin du. Guk badakigu gure erlijioa baketsua dela, eta emakumea babesten duela; gainera, emakumeak ikastea eta gizartean parte hartzea ere sustatzen du. Dena dela, mendebaldeko iritzi publikoan zabaldu den Islama da muturreko ideologia duten herrialdeetan inposatzen dutena: Afganistangoa, Iranekoa edo Saudi Arabiakoa, esaterako. Herrialde horietan, Islama aitzakiatzat hartzen duten sistema politiko zapaltzaileak daude, baina ez dute zerikusirik erlijioarekin. Hala, uste dut mendebaldean buruko zapiari esanahi politikoa eman zaiola, eta horrek elkarbizitzan ondorioak sortzen dituela”, azaldu zuen.

Buruko zapia daramaten Aiako eta Orioko emakume musulmanek sentitu dituzte askotan beren identitatea publikoki erakustearen ondorioak. Ghariba El Ghailani oriotarraren iritziz, uste oker asko daude gai horren inguruan: “Salbuespenak egon daitezke, baina hiyaba daramaten emakume musulman gehienek nahi dutelako janzten dute. Ez dute janzten gizonak esaten dietelako; beren fedea erakusteko modua da. Norberaren aukera pertsonala da, eta buruan zapia jantzita ez diote inori kalterik egiten. Nik neuk badakit egunen batean jantziko dudala, horretarako prest nagoenean, eta ziur nago zenbait ez zaiola gustatuko. Hala ere, uste dut inork ez digula esan behar zer jantzi behar dugun, guk besteei esaten ez diegun bezala”. Horregatik, debekua, zapia janztea inposatzea bezain kaltegarria



Jatorri desberdinetako herritarrek osatzen dute gaur egun Orio.

dela uste dute emakume musulmanek, emakumeek aukeratzeko duten eskubideen aurkakoa delako.

Emakume etorkinen iritziak, elkarren arteko errespetua eta elkar ezagutzeta da aurreiritziei aurre egiteko eta kulturarteko gizarte eraikitze gaitza. "Kolektibo oso baten inguruan iritzi bakar eta homogeneoa izatea, esaterako, kaltegarria eta arrazista da, ez dagoelako euskalduna, marokoarra, senegalدارra, nikaraguarra edo pakistandarra izateko modu bakar bat. Euskal Herrian gertatzen den bezala, munduko gainontzeko herrialdeetan ere askotariko ideologia, erlijio, sinismen eta iritziak daude". Horregatik, bizilagunak ezagutzen saiatzeko ahalegina egin behar dela uste dute. Horretarako, Karimen iritziak, ezinbestekoa da etorkinek gizartearen parte hartzea. "Antolatzen diren bilguneetan parte hartze aktiboa izan behar dugu, lehen pertsona hitz eginez, eta hori aberasgarria izango da gizarte osoarentzat".

"Hizkuntza, kulturen arteko zubi"

Eremu publikoan parte hartzea, ordea, ez da beti erraza izaten, batzuetan hizkuntza oztopoa izan daitekeelako, euskaraz edo gaztelaniaz ez dakitenentzat batez ere. Gainera, herri askotan bilgune horiek euskaraz izaten dira, eta horrek zailtasunak sortzen dizkie emakume migranteei parte hartzerako orduan. Zenbait etorkin baztertuta sentitu izan dira noizbait bertako hizkuntzetan komunikatzeko gai ez direlako. "Bartzelonan bizi nintzenean katalana ikasi nuen bi urtez, eta hemen euskaltegian ere aritu naiz, euskara ikasten. Dena dela, oso zaila da hizkuntza berria

"Emakume etorkinak inbisibilizatuta daude"

AHALDUNTZE ESKOLAKO ARDURADUNAK

Orioko Ahalduntze Eskolako teknikariek herriko emakumeen diagnosia egin zutenean, ohartu ziren emakume migranteek bertakoek baino "oztopo gehiago" dituztela egunerokoan. "Kasu batzuetan hizkuntza zailtasunetako bat izan daiteke, baina matxismoaz gain, beste hainbat diskriminazio egoera ere

jasaten dituzte: arrazakeria, islamofobia etab. Gainera, bazterketa horiek bizitzako arlo guztietan dute eragina, bai harremantzeko garaian, baita oinarriko beharrak asetzeko garaian ere", azaldu dute. Horregatik, garrantzitsua iruditu zaie arrazakeriaren gaia lantzea. "Orioko herritarren %10 etorkina

dira eta diagnostikoan argi ikusi genuen emakume etorkinak inbisibilizatuta daudela. Ez dugu errealitate hori kontuan hartzen; askotan aniztasuna bilatu beharrean baztertu edo ukatu egiten dugu, eta ahalegina beraiek egin behar dutela uste dugu, gainera. Horrez gain, zenbait erakundetan argazkirako erabili izan ohi dituzte etorkinak, eta aurpegi garbiketa asko egin izan dira beren izenean", adierazi dute Ahalduntze Eskolako kideek.

ondo ikastea, batez ere familiaren zaintza eta lanarekin uztartu behar denean, eta utzi egin behar izan nuen. Ahalegina egin arren, badira pertsonak gai horrekin gaizki pasarazi didatenak, ordea”, azaldu du Torresek. Hark hizkuntzaren gaia ez du sekula oztopo gisara ulertu; gainera, gaur egun elkarrizketa oso bat euskaraz jarraitzeko gai ez bada ere, ulertzen du, eta esaldi solteak ere esaten ditu. “Hala ere, jendaurrean lan egiten dudanez, askotariko pertsonekin hitz egin behar izaten dut: batzuek egiten dudana ahalegina aitortzen dute, baina beste batzuk saiatzen dira berena inposatzen... Eta egunero umore berarekin esnatzen ez garenez, zenbait egunetan gehiago eragiten dute mota horretako komentarioek”, adierazi du.

El Ghailaniren gurasoek jatorri marokoarra dute, baina bera Orion jaio zen, eta txikia zenetik hitz egiten du euskaraz; haren iritziz, euskarak balio du jendeak izan ditzakeen aurreiritziak gainditzeko ere. “Nik euskaldunekin euskaraz hitz egiteko ohitura dut, eta ohartu naiz asko baloratzen dutela keinu hori. Orion gehienok ezagutzen dugu elkar, baina beste herri batera edo Donostiara joan eta euskaraz hasten naizenean, aurrean dagoenaren jarrera desberdina izaten da. Hitz egin aurretik, kanpotarra naizela uste dute, baina euskaraz hitz egiten diedanean segituan bertakoa naizela ohartzen dira, eta asko eskertzen didate, gainera, euskaraz aritzea. Uste dut euskarak kulturen arteko zubiak eraiki ditzakeela”, azaldu du. ■

"KOLEKTIBO OSO BATEN INGURUAN IRITZI HOMOGENEOA IZATEA ARRAZISTA DA"

"EUSKARAK KULTUREN ARTEKO ZUBIAK ERAIKI DITZAKE"

NON DAGO KARKARA?



Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkatututa aurkitu behar da, eta erantzuna *karkara@karkara.eus* e-posta helbidera bidali apirilaren 19a baino lehen. **Saria:** Altxerri jatetxean 2 pertsonentzako bazkaria. Karkarako Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.



KARKARAKO bazkide Inaxio Andres Aguirianok irabazi du Patxi Oliden Harategiak emandako produktu sorta.



ORIOITAR

bat gehiago



**BATU KARKARAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41



Aita Mari proiektua, itsas salbamendu humanitarioa

NEREA MACHADO SMH-KO KIDEA

Nerea Machado Iparragirre hiru seme-alabaren ama da, eta 2019an SMH-ko lantaldean sartzeko aukera ezin hobea izan zuen.

Nola dago osatuta Aita Mariko tripulazioa?Salbamendu taldean zenbat zarete?Proiektu hau noiztik dago martxan?

Aita Mari ontziak zazpi tripulatzaile profesional ditu, legeak eskatzen digun gutxienekoa: kapitaina, 1. ofiziala, 2. ofiziala, makina burua, makinako marinela, eta zubiko bi marinela. Horiez gain, sukaldaria ere kontratatua du. Tripulazioa osatzeko boluntarioak ditugu: medikua, erizaina, sorosleak eta kazetaria.

Zuk zer egiten duzu zure jardunean?

Erakundeak bizirauteko ezinbestekoak dituen dirulaguntzen tramitazioa eta zuriketa egiten ditut. Ordaindu beharreko gastuen kudeaketa, langilegoaren bidaien kudeaketa... Laburtuz, gestio lanak.

Zein izan da zure lanean gertatutako esperientzia gogorrena?Eta pozgarriena?

Nire lana lehorrekoa da. Guk hemen guztiaren berri dugu, baina ezer gutxi egin dezakegu bertan daudenei gure babesa eskaintzeaz gain. Gogorrena,



Orioko Herri Ikastolako LH 6.mailakoak, proiektu honen berri jasotzen.

erreskate bat egin eta agintarien erantzuna ez jasotzea da.

Aldiz, erreskate bera oso une zorionsua da. Ontziren bat bistaratua dutenean jakinarene gainean jartzen gaituzte. Hor, urduritasunak hasten dira, eta konexioa ia eteten da, erreskateak nahiko lan ematen baitu. Bukatzen dutenean eta esaten digutenean, “guztiak ontzian ditugu”, sekulako unea da.

Zer egin dezakegu guk proiektu honen mesedetan?

Gure inguruan oso eroso bizi gara, baina jabetu behar dugu guztia ez dela horrela, eta beste errealitate batzuk hor daudela. Gizartea sentibilizatu beharra dago gure ikuspegia zabaltzeko, kritikotasuna landuz. Gure eskuetan dago gure haur eta gazteak gerora begirako gizarte anitz, berdin, aske, ... bateko kide kritiko izateko gakoa. Proiektuari zuzenean laguntzeko finantziarioa da beharrik premiazkoena. ■■■



Bizitzako lehen kolpea

Nerabearoa eta festa, festa eta nerabearoa, zein ondo uztartzen diren. Harreman oso polita zuten biek, baina halako batean hirugarren pertsona bat sartu zen harremanean, eta festa berarekin joan zen. Orain nerabearoa festa berreskuratzeko ari da borrokan.

Istorio labur honetan laburbildu daiteke nerabeok momentu honetan bizi dugun egoera. Gogorra da nerabearoko urterik onenetan hau gertatzea, ikustea nola gure bizitzako bi urte hegan doazen atera behar genien etekina atera gabe. Urte honetako festak galdu ditugu egoera larri honengatik. Egia da, eta onartzen dut, adin guztietako pertsoneri ari zaiela egoera hau eragiten arlo batean edo bestean. Baina jarri gaitzen momentu batean pentsatzen: esaten dutenez, bizitzako urterik politenak nerabearokoak dira, eta gu galtzen ari gara. Honekin ez diot birusari ezer esan nahi alferrikakoa delako, baina bai iruditzen zait aldarrikatzekoa eta mirestekoa dela gazteen jarrera egoera honen aurrean, guztiok egin dituzuen eta guk egin nahi ditugun udako parrandak galtzen ari garenean.

Urte oso bateko festak galdu ditugu, eta beste urte bateko zatia galtzen ari gara. Jarraitu dezagun denok borrokan beste urte batekoak gal ez ditzagun. ■■■



Eskola Osasungarria ziurtagiria jaso du Zaragueta Herri Eskolak

Jarduera fisikoa eta ohitura osasungarriak eskolan modu integralean txertatzea helburu hartuta, Zaragueta Herri Eskolak hiru ikasturteko prozesua egin du nazioartean lan egiten duen Des erakundearen eskutik.

Testua eta argazkiak: **Iñigo Gaiton.**

Zaragueta Herri Eskolak Eskola Osasungarria zigilua jaso du. Hiru ikasturteetan zehar —2017/18, 2018/19 eta 2019/20— eskola komunitate osoaren inplikazioa eskatu duen prozesua egin dute. Estatu mailan eta nazioartean lan egiten du Des erakundeak, Europar Batasunaren bermearekin, haur eta gaztetxoaren artean jarduera fisikoa eta ohitura osasungarriak sustatzeko xedearekin.

Rafa Gonzalez de Txabarri erakundeko kidea da, eta berak du Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egiten duten lana koordinatzeko ardura. Zaraguetako gurasoa ere badenez, egitasmoa eskolan gauzatzeko proposamena egin zion zuzendaritzari. Horiek aurrera egitea erabaki zuten, eta orain, gustura agertu da emaitzarekin. “Hiru urteko lanaren helburua izan da eskolak Osasun Plan bat edukitzea, osasunak hezkuntza prozesuan eta curriculumean toki konkritu bat izan dezan —hizkuntzek edo beste gaiak duten modura—. Obesitatea gero eta arazo larriagoa da haur eta gaztetxoaren artean, sedentarismoari eta elikadura txarrari lotutako ohituren ondorioz, eta horregatik, osasunari tokia egin behar zaio hezkuntza prozesuaren erdigunean”.

Gonzalez de Txabarrik adierazi duenez, hiru ikasturteetan Osasun Plana garatzen joaten da Eskola Osasungarria ziurtagiria jasotzeko bidea egiten duen ikastetxea, gero eta zailtasun handiagoarekin. Urtero, ikuskatzaileek bermatzen dute zentroan egiten den aitortza-lana, eta hiru domina ematen dira: brontzea lehen urtean, zilarra bigarrenean, urrea hirugarrenean. Azken hori lortu du Zaraguetak.



Bide aberasgarria

Hiru urteetan formakuntza saioak eta esperientzia trukaketak egin dituzte Zaraguetan, eta modu batera edo bestera, irakasle, ikasle eta gurasoen partaidetza izan dute egindako jardueretan; horiek askotarikoak izan dira: irteerak, adituen hitzaldiak, kontzientziario kanpainak, Igogailurik gabeko eguna, Mugikortasunaren nazioarteko astea, Bizikleta eguna...

Prozesuaren azken bi ikasturteetan, Zaraguetako soinketako irakaslea izan zen Jon Sarasola hernaniarra, eta haren iritziz, proiektuarekin lortu da eragitea eta kontzientzia piztea. Bera ordu batzuz liberatuta egon zen egitasmoari behar zuen denbora eskaini ahal izateko. “Horrek argi erakusten du eskolak erakutsitako konpromiso maila”, zehaztu du. “Desetik formakuntza jaso eta hori guztia ikastetxean zabaltzea izan zen nire lana, jarduerak antolatu eta ikasle eta familiekin gauzatzeaz gain. Ariketa fisikoarekin eta elikadurarekin lotutakoak izan dira praktika gehienak”, azaldu du Sarasolak. Horrez gain, egitasmoan tokia izan dute harreman osasuntsuek, ingurumenak eta ongizatearekin lotutako beste hainbat gaik ere

Irakaslearentzat, zigilua lortzeko bideak “eskolan kontzientzia pizteko” balio izan du. “Eguneroko bizitzaren zurrunbiloan sartuta gaudela, oso ohikoa da osasuna bigarren planoan uztea, eta proiektu honek balio izan digu hiru ikasturtez gaia oso presente izateko”.

Bere inpresioaren arabera, ikasleen aldetik harrera oso ona izan dute inizatiba guztiek. “Haur eta gaztetxoak amorratzen egoten dira jarduera praktikokoak egin eta liburu artetik ateratzeko. Hezkuntza sistemak erronka handia du aurrean: ikaskuntza metodo teoriko-estatiko batetik aktiboago batera pasatu behar da, jarduera praktikokoak eta mugimenduak toki gehiago izan dezaten”. Sarasolarentzat, ziurtagiria jasotzea ona da eskolarentzat, baina balio handiagoa eman dio bidean bizi izan dutenari. “Bilera eta esperientzia trukaketa asko egin dira, ikasleekin jarduerak, momentu bereziak... Horrek guztiak azterna utzi du hezkuntza komunitatean, eta hori iruditzen zait onena etorkizunera begira”. ■■■

"ZIGILUA LORTZEKO BIDEAK ESKOLAN KONTZIENTZIA PIZTEKO BALIO IZAN DU"

"OBESITATEA GERO ETA ARAZO LARRIAGOA DA HAUR ETA GAZTETXOEN ARTEAN"



"Erabat pasionala da rallyetan gidatzeko dudan modua"

GORKA EIZMENDI RALLY PILOTUA

Motor kontuetan bete-betean murgilduta bizi da Gorka Eizmendi, ofizioz eta afizioz. Duela urte gutxi, autoak konpontzeko tailerra ireki zuen Botalekun, eta han juntatu da KARKARAekin, lanak tartetxo utzi dionean. Bestalde, 2016tik Espainiako Rally Txapelketan dihardu lehian, eta goiko postuetan ibili izan da sarri.

Testua: **Iñigo Gaiton**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta Gorka Eizmendi**.



Gorka Eizmendiren autoa airean, Espainiako lur gaineko rally zirkuituko lasterketa batean. UTZITAKOIA

Nondik datorkizu rallyetan aritzeko afizioa? Familian ez da pilotu edo rallyzalerik; aitari betidanik gustatu izan zaizkio autoak, baina gutxi gehiago, etxean ez dut erreferenterik eduki. Dena den, umetatik izan dut txofertzarako obsesioa. Mendi aldean bizita, urte gutxirekin autoarekin maniobrak egiten uzten zidaten. Bolantean minutu bat egite hutsak eguna pozten zidan.

Zer sentitu zenuen rally bat bertatik bertara ikusitako lehen aldian?

18 urte izango nituen, eta berehala harrapatu ninduen motor hotsaren eta abiaduraren munduak. Probatzeko gogoia sartu zitzaidan. Erabat autodidakta izan naiz ordutik gaurdaino egin dudana ibilbidean.

Espainiako lur gaineko rally zirkuituan dituzun aurkariak ere autodidaktak al dira?

Ez, gehienak 10 edo 15 urte zituztela hasi ziren karting-eant, auto txikiekin lehiatzen. Nik 22 urterekin egin nuen aurreneko karrera.

Bakarrik trebatu izanak zertan eragin du zure gidatzeko moduan?

Senarekin gidatzen dut erabat; egia esan, beti egin izan dut horrela. Pilotu profesionalak dira nirekin aurreko postuetan dabilzanetako asko, eta astelehenetik ostiralera entrenatzeko aukera izaten dute. Horregatik, ni baino teknikoagoak dira. Tamalez, nik ez dut rallyei emanda bizitzeko aukerarik, eta astean zehar lana egin behar izaten dut. Horren ondorioa da lasterketetan erabakiak modu inpultsiboagoan hartu behar izatea.

Alegia, besteek baino gehiago arriskatu behar izatea?

Bai, baina badira nik adina arriskatzen dutenak ere, haiek ere entrenatzeko aukerarik ez dutelako.

Nola definituko zenuke txofertzarako duzun estiloa?

Pasionala, sutsua dela esango nuke. Duela hiru aste lasterketa izan nuen Madrilen. Lau hilabete pasatu ditut rallyetako kotxea hartu gabe, eta martxan jarri eta abiatu orduko, lehen errebueltan denak emanda sartu nintzen, gurpilak arrastaka. Oso modu naturalean ateratzen zait hori egitea. Bizi egiten dut rallyen mundua, eta bolanteari eusten diodanean, gorputz eta arima jartzen naiz horretara.

Lasterketetan erreferenterik izan al duzu?



Errebuelta batean, gurpilak arrastaka. UTZITAKOIA



Lasterketa osteko elkarrizketa batean. UTZITAKOIA

Aholku asko eman dizkidate, onak eta txarrak. Karreretan hasi eta gutxira Iñaki Alberdi azpeitiarra ezagutzeko aukera izan nuen; beharbada, momentuan ez nien kasu handiegirik egin hark esandakoei, baina esperientzia handiko pilotua da bera, eta ondo etorri zitzaizkidan berarekin edukitako hizketaldiak. Gero, Espainiako zirkuitua egiten hasitakoan, Jorge del Cid ezagutu nuen, hura ere azpeitiarra. Uste dut mareatu ere egiten nuela egiten nizkion galdera guztiekin.

Atzera itzulita, nola erabaki zenuen aurreneko rallyan parte hartzea? Ez da erraza izango lehen urrats hori ematea.

2010. urtea izango zen. Etxekoei ez zitzaien ondo iruditu komentatu nienean, baina xorro-xorro, aita laguntzen hasi zitzaidan. Orduetik, beti izan dut ondoan laguntzen.

Ezagun egin zinen lehen karrera hartan, espektakulua emateagatik. Horretara atera al zinen?

Bai. Aurreneko kotxe hark lehen postuetan ibiltzeko aukera gutxi eskaintzen zuen, eta horregatik, jendearen arreta pizteko, errebuelletan-eta kotxearen atzealdea trabeskatuta ibili nintzen. Publikoan egondako jendeak esandakoaren arabera, nire gidatzeko moduak atenzioa deitu zuen lehen lasterketan, eta hastapenetan, bidea egiten hasteko lagungarria egin zitzaidan.

Nola pasatu zinen afizionatuen rallyetan lehiazetik goi mailan jardutera?

Etxean hartutako erabakia izan zen, besteak beste, babeslerik ez nuelako oraindik. Espainiako lur gaineko rally zirkuituan parte hartuko nuela erabaki genuen 2016an, eta maila horretan nabil orduetik. Zorionez, azken urteetan babesle sendo bat izan dut nirekin.

Zer aurrekontu behar izaten da orain zabiltzan mailan denboraldi bat egiteko?

Gutxiengo zifra emango dizut: 100.000 euro. Hortik gora, nahi duzun guztia. Oso erraz joaten da dirua. Txapelketa batera joan eta rallyaren aurretik zirkuituan entrenatu nahi baduzu, txapelketan baino gasolina gehiago erretzen duzu entrenamenduetan, gurpil zorroak ere gastatzen dira, frenoak... Kotxea martxan jartzen den bakoitzean gastua egoten da. Zoritzarrez, gu nahikoa justu ibiltzen gara aurrekontuarekin. Gero, aparte, autoa ere erosi behar da.

Eta zenbat balio du orain duzunak?

250.000 euro, BEZik gabe.

Zer gasolina kontsumo du?

75 litro 100 kilometroko; kaleko auto batek baino hamar aldiz handiagoa. Gure lasterketetan 200 kilometro baino gehiago egiten ditugu; 100 kilometrotik gora lasterketan, eta gainontzekoak lehiaketa eremu batetik bestera joaten.

Diru asko behar da, gero.

Goi mailan behintzat, bai. Hasierako urteetan erabiltzen nituen autoak, jakina, merkeagoak ziren. 20.000 euroren bueltan ibiltzen ziren. Hasieratik saiatu gara lanak txukun egin eta autoak zaintzen, gero ondo saltzeko, baina tartean istripuak ere izan ditugu, eta normala den bezala, dirua galdu ere bai tarteka. Afizionatuetan egin nuen lehen denboraldian, aurreneko kotxea apurtu egin zen, eta bigarrena erosi behar izan genuen. Bada, bigarren horrek, lehen lasterketan su hartu zuen, istripua izan eta gero. Orain nabilen mailan, oso kontuz ibili behar izaten dut, kotxea izorratuz gero bizpahiru denboraldirako aurrekontua izorratu dezakedalako.

Denak emanda ibiltzen zaretela ikusita, zaila izango da arriskatu edo ez oreka bilatzea segundo gutxiren bueltan.

Oso zaila.

Istripu larrik izan al duzu?

Zorionez, ez gara istripu asko izatekoak, baina azken hiru denboraldietan bi ezbehar larri izan ditut, min hartzekoak. Gogorrean, hilabeteak behar izan nituen osatzeko eta berriro lehiatu ahal izateko. Batzuetan iruditzen zait ezbehar horretatik psikologikoki ez naizela guztiz



Eizmendi, etxeokak eta lagunak ondoan dituela. UTZITAKOA

"BEREHALA HARRAPATU NINDUEN MOTOR HOTSAREN, ABIADURAREN ETA RALLYEN MUNDUAK"

"PILOTU BATEK ASIMILATUTA IZAN BEHAR DU RALLYETAN UNE ORO IZATEN DELA ARRISKUA"

"EGUNEN BATEAN DAKAR LASTERKETA EGITEA DA NIRE AMETSA"

errekuperatu; ez dut uste lehen bezain azkar nabilenik, ordutik txapelketa bat irabazi dudan arren. Konfiantza kontua da dena; kotxean orduak eta orduak eginda itzuliko naiz lehengora.

Nola bizi duzu arriskuaren eta beldurraren gaia?

Buruko min handia ematen dizun zerbait al da?

Rallyetan dabilenak badaki autoan sartutako bakoitzean arriskua hor dagoela; hori asimilatuta izan behar du pilotu batek. Gero, norberak ikusi behar du zergatik jartzen duen bere burua kotxe baten barruan; pilotu bakoitzak jakingo du konpentsazioa nondik datorren. Guztiok egiten diogu galdera hau geure buruari: benetan merezi al dit autoarekin ziztu bizian ibiltzeak? Nire kasuan, erantzuna oso garbi dut: bai. Bizitza bakarra da, eta nire iritziz, norberak gustatzen zaiona egiten saiatu behar du beti.

Autoei dagokienez, seguruagoak al dira oraingoak?

Azken hamabost urteetan aurrerapen handiak egin dira, eta seguruagoak direla esango nuke. Esparru horretan, ikerketa eta hobekuntza konstantea da, lan asko egiten da.

Azkarragoak ere badira?

Errendimendu hobea dute orain lehen baino; alegia, 300 zaldiko lehengo autoa eta oraingoa konparatuz gero, zaldi kopuru berarekin orain azkarragoak dira. Gero, mekanikari dagokionez, azken hamar urteetan ez da aldaketa handiegirik izan, eta zorionez, gure autoetan ez da elektronika askorik. Teknologia eta motorrak ez dira asko aldatu.

Eta karbono emisio aldetik? Zer kontzientzia dago rallyen munduan karbono arrastoa murriztearen eta aldaketa klimatikoaren gainean?

Kezka eragiten duen gaia da, zalantzarik gabe. Ikerlariak eta mekanikoak ari dira konponbideak bilatu nahian, auto hibridoak fintzeko ahaleginean. 1 Formulatan, adibidez, auto guztiak dira hibridoak, eta rallyen maila altuenean ere bai, World Rally Championship ligan. Urte batzuk barru, guri ere tokatuko zaigu aldaketa egitea.

Kanpotik ikusita, ematen du afizionatuen rallyetan eliteko lasterketetan baino arrisku handiagoa izaten dela, baliabide gutxiagorekin antolatzen direlako.

Ez luke zertan. Maila guztietako lasterketetan oinarrizko araudia bera dela suposatzen da; autoek eta pilotuek gutxiengo berak bete behar izaten dituzte: autoen barruan barrak eduki, aulki eta arnes homologatuak, arropa berezia...

Emaitzei dagokienez, zein izan da orain arte lortu duzun garaipenik handiena?



Txapelketa bat irabazi eta gero. UTZITAKOA



Gorka Eizmendi, auto barruan.

Espainiako zirkuituan bi garaipen lortu ditut, eta maila baxuagoko rallyetan ere badauzkat txapelak. Espainiako lur gaineko rally zirkuituan lortutako bi garaipenak bereziak dira; aurrenekoa, estreinakoa izan zelako. Neure buruari eta nigan sinetsi dutenei erakutsi nien gai nintzela azkar ibiltzeko. Gero, bigarren garaipena ere oso berezia

izan zen, istripua izan eta hilabete batzuetara lortu nuelako. Hilabete txarrak pasatu nituen sendatzen, eta lasterketetara itzulitakoan, bi emaitza txar lortu nituen. Moralki baxu samar nembilela, garaipena eskuratu nuen hurrengo rallyan, eta indar ikaragarria eman zidan.


Zer helburu duzu epe laburrera begira?

Denboraldian zehar, Espainiako zirkuituan aurreneko bost postuetan sailkatzea gustatuko litzaidake, eta bukaeran zirkuitua irabazteko aukerak izatea. Bestalde, zirkuitutik kanpo proba solteren bat egiteko gogoia dut, presiorik gabe lehiatzeko eta gozatzeko.

Eta ametsen bat ba al duzu?

Hiru urte badira Baja modalitateko lasterketaren bat egiteko aurrekontua lortzen saiatzen hasi nintzenetik, baina ez dut lortu. Horri begira lanean jarraituko dut; orain arte erakutsi dugu, ni baino pilotu azkarragoak egon arren, gai garela gure proiektuak ondo saltzeko eta babesleak lortzeko, eta baikorra naiz. Baja Aragon egitea gustatuko litzaidake; hor lehiatzen dira gero Dakarrean parte hartzen dutenak. Epe luzera begira, Dakarra egitea da nire ametsa. ■■■

MARKETING DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA       ZERBITZUAK

IRITZIA

AKUILUA HARTUTA



JOKIN SALSAMENDI

Plaza

Jaio nintzenetik izan da presente Orioko plaza nire bizitzan. Bertan jaioa, nire oroitzapenak esnatu zirenetik ikusi, entzun eta sentitu dut plaza. Bertan arnastu dut itsasoa, kresala, marea betean, ura dagoenean. Bertan entzuten nituen udaberriko ostiraletan sarek betetako gomazko gurpil handidun karroen eta marinelen zalapartak, gure herri arrantzalean 25 bapore zirenean. Etxe atariko koskan, munduko pulpiturik ederrenean, eserita egoten ginen etxekoak banderen rezibimientuak ospatzen, plaza horiari begira. Bere harlauzen kontra urratzen genituen belaunak, odoleztatuz eta gero petatxu eliptikoz konpontzen zizkiguten txandalak. Adabakiez arropa dena aprobeztatuz.

Berrerabili eta oinordetzan pasa. Kaniketan, txiban, koskarik koska... eta bereziki, futbolean. Horrela aritzen ginen, dena ematen, auzoko umeak. Sozializatzen. Baloia erriora joaten zen arte. Orduan hasten zen festa. Moilan amarratutako itsasontzien kareletik eskuzko salabardoak hartu eta baloiaren arrantzan hasten ginen. Plazan pasa dut beldurra Patrol berdeen kuartela udaletxe atzean zegoenean eta festetan buruhaundiek maskuriekin gure ipur-masailak berotzen zizkigutenean. Plazan disfrutatutako ikaragarri txarangaren atzetik banderen rezibimientuan eta Realak ligak irabazi zituenean. Gogoratzen naiz, baita ere, plazaren erdian, kioskoaren azpian marmolezko aingura bat egin zutenekoa ere.

Handik urte askotara ehun pezetetako txanponez bete zuten aingura, diru biltze kanpaina batean. Oroimina. Kuriosoa iruditzen zitzaidan nire plaza zoriontsu horren erdian nire amona Paulinaren tristura eta nostalgia plaza zaharraren minez. Hango iganderoko baile, eta hango jolasak eta festak.

Eta obra etorri zen 2019ko irailaren bueltan. Bota ziren plazako kioskoa eta harriak. Beharrezko herri lanak. Eraiki ziren trintxerak eta burdinezko zubiak. Ekarri ziren eskabadorak eta makinak. Hango mailu hidraulikoaren zarata (ametrailadorearen traka-traka errepikakorra bezala) eta konpresoreen eskandalua. Eta etorri zen izurritea 2020 ko martxoan. Ongi-etorri etxeratzea.

HAUXE BAI JENEROA!



Telelana. Gelditu zen mundua, etxean sartuta gehienok, baina plazako lanak aurrera heroikoki. Telefonoz ezin etxean hitz egin eta leihoa irekiz gero zalaparta. Zortziretan balkoian txaloka mediku eta erizanei beraien lana eskertzeko eta obreroek lana bukatu zutelako hurrengo egunera arte ospatzeko. Eta amaitu zen etxeratzea. Etxetik atera ginenerako eraiki zuten kiosko berria. Hara lehengo plaza zaharraren erreplika. Zahar itxura duen plaza berria. Aintzinako garaien nostalgiak elikatua. Amona gustura egongo zatekeen. Oso plaza polita. Baina plaza honek ez ditu ekarriko hango kontuak. Orio hori hil zen. Eta etorri zen txertoa. Hirugarren pandemia-olatua lehertu ondorengo ur apartsuetan gauden honetan,

oraindik plaza eraberritzeko lanetan dihardute. Jarritako lurra kendu, zulatu hormigoiz lehortu berria, hango arketa. Pzifer, Moderna, Astra-Zeneka eta Baron Dandy bakunen erdian oraindik zulo, oztopo eta konpresore. Dirudienez, pandemiaren amaiera ondoren ere obrak jarraituko du.

Eta hemendik berrogeita hamar urtera plaza hau zaharkitzean, nire belaunaldiko jendearen oroimen nostalgikoak elikatuta, oraingoa bota eta agian orain kendu dutenaren iguala jarriko da. Arkitekturaren eboluzioa. Mundua aldatzen ari da, azkar gainera, eta orain ezin dugu plazan futbolearen aritu... porteria kendu digute!

Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Orioko plazan. ■■■

NIRE HONETAN



ONINTZA LETE ARRIETA

Imitazioa

A itak behin baino gehiagotan esan digu ahizpari eta bioi ez daukala guri uzteko herentzia handirik, ezpada etxeko apalategi handian nahiz egongela eta geletan sakabanatuta dituen musika disko eta biniloak, eta DVD, CD eta VHSetan bildutako film eta operak. Horiekin batera, ordea, apalategiaren zati handi bat liburuak hartzen dute. Egunen batean galdetu beharko diot zergatik dituen horrenbeste, berak ez badu irakurtzen. Kontua da ahizpak eta biok orduak eta orduak pasa ditugula haurtzaroan liburu horiek hartu eta argazkiei begira. Esaterako, animaliei buruzko bilduma paregabeari. Nerabezaroan literatura klasikoko liburuak deskubritu genituen, eta beste ordu mordoak pasa haiek irakurtzen.

Neure etxean ez daukat halako tokirik, baina egongelan ahal nituen liburu guztiak sartuak ditut, eta han kabitzen ez direnak ganbaran eta eskailerapean daude, egunen batean merezi duten tokia emateko esperantzarekin.

Bakarren batek harridura agertu izan dit "horrenbeste" liburu ditugulako, baina haietakoren bat esku artean dudala sofan eserita egon, eta ondora seme-alabak ipuin banarekin hurbiltzen zaizkidanean, halako satisfazio batek betetzen dit barrua. ■■■



PUBLIZITATEA



Portu
Ertegia - Jaitzea

Kazolirik, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g - AIA
943-89 44 34



Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti

www.sagastileihoak.com

BODEGON

Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



Seguros Bilbao

Santi Barranco
Orioko Ordezkarria

Endaia Enparantza, 1 · ORIO · sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 · 688 71 48 69




ORANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36



Sinergia

fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinerгияfisioterapia.com · f i

- **Lesioak:** bihurturak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, amas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekuperazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, amas fisioterapia, kinesioping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.



Orioko Herri Ikastola

ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



Oreaka

fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



SU KIA

TABERNA · JAITETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29



Ttipi

Eusko Gudarien, 15
ORIO
943-25 96 95

ttapa

Gorputza mugatzen



EGOITZ DORRANSORO

Gaurkoan gorputza hartu nahi dut ardatz. Zehazki, gorputza askatasunaren amaiera izan dadin jasaten dugun politikaz. Foucaultek biopolitika deiturikoa; norbanakoen eta biztanleriaren, hots, bizitzen gainean gobernatzeko helburu duen teknologia, praktika, estrategia eta arrazionaltasun politikoen multzoa. Hau da, gorputzen gaineko botere harremanak eta erabaki politikoak. Estatu modernoek instituzio sarea erabiliz (ikastetxeak, zaharren egoitzak, ospitaleak, polizia...), bizitza zein heriotza gobernatzeko erabili ohi duten estrategia politikoez ari naiz; horiek heziketa eta zigorra erabiliz giza gorputzean hezurramitzen dira.

Boterea gizartean gorputz eredu bat gailentzeko erabiltzen dute, instituzioen bitartez, gorputzean jarrera zehatz batzuk barneratuz: ikas prozesua da adibide garbiena, kontzeptuak ikasteaz gain, gorputz jarrerak ere ikasten baitira. Gure gorputza eta nahiak autokontrolaz mugatzen irakasten digute. Eredu horretatik (sistema kapitalistatik) kanpo geratuak ordea, zigortuz birbideratu nahi dira: ospitaleak, kartzelak, eroetxeak... erabiliz. Hau da, konfinatuz. Kontzeptu ezaguna, ezta! Pandemia hau biopolitikaren adibiderik agerikoena da: pandemiaren kudeaketa, bizitza eta heriotza administratzeko adierazlerik nagusiena bihurtu da. Osasunaren izenean guztion bizitza ia erabat kontrolatuz, agerikoa da norbanakoak otzan bilakatzeko asmoa. Helburua at geratzen direnak azpiratzea izanik, hauek ikusezin bilakatu edota desagertzeraino: zuriak ez direnak, gaixoak, familia gabeak, behartsuak, etxerik ez dutenak, kontratu gabeko langileak... Pandemia honetan neurriek buruhauste gehiegi ez emateko, familia eduki behar duzu, lana, etxea, kontu korrontea eta txartel bat. Bestela, begiratu zer pasatzen den Frantziak eta Espainiak okupatutako gure lurraldean, *mugan*. Baionara pasatzea lortzen dutenek ia ez dute autobusik, txartelen prezioa hirukoiztu egin da eta hau bankuko txartelarekin bakarrik eros daiteke. Ezleku batean geratzen dira, abandonaturik. Zaila da "osasunaren alde" ezarri duten diskurtsoari aurre egitea. Zaila, krisi honek azaleratu dituen egoera zurgarri guztiak kontuan hartuz diskurtso berri bat osatzea. Egun boterea instituzioetan segmentatua eta lausotua dagoenez, zaila da aurkari argi bat ikustea. Erdi Aroan boterea identifikatzea errazagoa zen, errege eta erlijioan zentralizatua baitzegoen. Beraz, iraultza tradizional bat bitarteko instituzio horiek zalantzan ipini eta garai zitezkeen. Orain ordea, ezin dugu betiko matxinada bat erabili. Beraz bakoitzak beretik eragin behar dugu, ingurua aldatuz mundua aldatzeko. Komunitatean eztabaidatu behar dugu nola egin aurre pandemiari, inposaturiko neurriak zalantzan ipini eta *txibatismoa* deuseztatu behar dugu. Eta ez ahaztu, ez garelako lanerako jai! ■■■

**OSASUNAREN IZENEAN
GUZTION BIZITZA
ERABAT
KONTROLATZEN DUTE**



XS arkitektura www.xsarkitektura.com
herrikobarra, 11 behea • ZARAUTZ • 943-13 43 58




- eraikuntza zerbitzuak
- eraikinen mantenua
- errehabilitazioak
- proiektuak
- txostenak
- IITE-ak
- obrak

ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 74 02 79




Zarautz

Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura

24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia • Lekualdatzeak •
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35 • ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus



BIYONA
BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS



etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak

eraberritzekotan?

Bisita gaitzazu

 Geltoki bidea, 1 • ZARAUTZ •  943-13 50 16 • www.biyona.net

Euskara bihotzean



TESTUA: IÑAKI CARRETERO

Orain dela 26 urte Oriotik atera nintzen Gastiez aldera. Oriotik bi gauza eraman nituen nirekin: nire bizitza Opel Kadet baten maleteroan, eta sortu eta hazten ari zen euskara nire barnean. Bai, euskara sortu eta hazi behar delako norberaren senean; bestela, beti euskaldun berria izango zara. Nik titulorik ez dut, ez PL, ezta EGARik ere, baina euskara dut barnean; euskara maite dut, baina euskara bere horretan, ez erdaratik itzulitako hizkuntza hori.

Behin euskara gorrotatu nuen, 26 urterekin, EGA agiri zerri hori ateratzeko ikasten ari nintzenean, hamaika urtez euskaraz bizi ondoren: euskararekin jolasten, euskaraz maitatzen eta larrua jotzen, euskaraz sentitzen eta nire hitzekin besteen gorputza eta arima ferekatu ondoren. Guztien hotsak nire ezpainetan, belarrietan eta bihotzean sentitu eta gero, arrotza sentitu nuen urteetan nire barnean sustraitzen ari zen hizkuntza. Euskara semantika, sintaktika, eta beste hainbat 'tika' baino gehiago da. Euskarak arima du, eta arima hori ez da ikasten, sentitu egiten da, sustraitu, elikatu, loratu eta kimatu batzuetan. Hala ere, berriz euskara maitatzen hasi nintzen euskaltegiko irakasle berri batek esan zidanean: "Hik ez duk

ondo idatziko euskaraz, baina euskararen arima baduk, eta horri eutsi gogor". Eta egia zen, nik euskaraz egiten bainuen amets. Hark esandakoak amets bat gogorarazi zidan: zeinen garrantzitsuak diren herria bera eta sentimendu primarioak euskara bizirik egoteko:

- "Zeintzea zu txiki?" esan zidan izena gogoratzen ez dudan ile zuridun amona batek, eta nik Juan Ignacio erantzun nion; berak: "A! Martina castellanaren txikia". Nik baietz esan nion buruarekin, eta berak laztan batez: "Ze ondo, me has entendido". Eskuan zuen usain goxoa ez dut sekula ahaztuko, txapan sukaldatzen den janari goxo horren usaina zen.

- 13 urterekin edo Rosita panaderak esan zidana: "Tu me tienes que hacer en vasco, que tu sabes bien, hi herrikoa haiz eta". Herrikoa, hitz xume eta indartsua aldi berean...

- Balkoitik, 'palotetan' entzuten ziren sarejostaileen hitz jario azkar, koloretsu eta kantari horiek, txorien kantuak ziruditen hitzak ziren; bizia zuten hitzak. Agian horrexegatik kontaktzen ditut ipuinak horren

**HERRIAK ERAKUTSI
DIDANA, EUSKARA,
NIREKIN DAGO, ETA
SUSTRAIAK ZABALDU
NAHIAN NABIL ARABAN**

azkar. Herriko istorioak entzuten nituen, herri baten oroitzapenak.

- Euskaraz Gazte ekimeneko lehenengo edo bigarren kanpainetan, hantxe, kale neurketa egiten, paper batekin apuntatzen norik egiten zuen euskaraz, adina eta sexua kontuan hartuta. Nire barruan, euskaraz entzuten nituen nire bihotz taupadak.

- Begirale Txurrukan: Maribel, Ana eta Koro, nire udalekuko ama maiteak. "Zer esaten dek euskaraz ondo egiten ez dekela, hik egiten dek ederki, eta jan ezak txorizo muturra ogiyarekin, flakua hago eta". Oraindik sentitzen dut zuen hitzen berotasuna; nire euskalduntasunerako amaitzen ez den ongaria izan da, eta da oraindik.

- Talaimendiko mendi irteerak; sendotzako begiralea izan nintzenean; zine kluba; ama Ostargin sartu zenean eta bere pena bakarra euskara ez jakitea zenean; Orion lehenengoz ipuinak kontaktu nituenean Euskaltegiko ikasleentzako... etabar luzea... Hau emozio pila euskararekin lotuta.

Opel kadeta aspaldi desagertu da nire bizitzatik, baina Herriak erakutsi didana, euskara bera, oraindik nirekin dago. Mantso sustraiak zabaldu nahian ari naiz hemen Araban, mingainetik belarrira eta belarritik bihotzera. ■■■

Zaharren Babeslekuak ez die urteko kuota kobratuko bazkideei

Orioko Zaharren Babeslekuak jakinarazi du bazkideei ez dietela 2021eko urteko kuota kobratuko, eta, oraingoz behintzat, ez dutela egingo urteko batzarrik, osasun egoera hobetu bitartean. Gainera, elkarteko zuzendaritzak barkamena eskatu die bazkideei 2020ko martxotik hainbat zerbitzu bertan behera geratu direlako, baina "bazkideen hobe beharrez"

hartutako neurriak direla gogorarazi dute. "Bingoa, eskulanean ikastaroa, mus txapelketa eta beste hainbat jarduera bertan behera geratu dira. Horrez gain, izurritea zabaldu zenetik, ez ditugu egunkariak izaten elkartean eskuz esku ibiltzen direnez kutsatze fokua izan daitezkeelako, eta kartetan jokatzeko ere galarazi egin dugu. Badakigu neurri horiek ez

direla bazkide guztien gustukoak, baina beharrezkoak iruditzen zaizkigu, bazkide guztion osasuna bermatzeko", azaldu du Txomin Iribar Orioko Zaharren Babeslekuko presidentek.

Elkarteko zuzendaritzako kideen nahia da pixkanaka zerbitzuak eta jarduerak abiatzea, osasun egoera hobetu eta horretarako baldintza egokiak direnean.

Orio Arraunketa Elkarteak logotipo berria estreinatu du



Oriaren Jaitsierako bandera logotipo berriarekin. IÑIGO GAITON

Elkartearen historian hiru aldiz berritu dute; 60ko hamarkadan sortu zuten aurrenekoa, moldatu egin zuten 80ko hamarkadan, eta orain, berriro eraberritu dute. "Zuzendaritza berriko kideok lehengo urtean hasi ginen lanean, eta, nolabait, elkarrekin jende, asmo eta ideia berriak dituela gorpuztu nahi izan dugu aldaketarekin", azaldu du Xabier Sukia Orio AEko zuzendaritzako kideak.

Sukiarentzat, logotipoa "ez da berria", lehengoaren eguneraketa bat baizik. "Aurrekoa garai berrietara egokitzeko saiakera bat egin dugu, modernizatzen saiatu gara".

Orion arrauna oso modu berezian bizi izan da betidanik, eta horren jakitun izanik, logotipoa berritzeko erabakiak "buruko minak" eragin dizkie zuzendaritzakoei. "Ez da izan bat-batean hartutako erabakia. Asko pentsatu dugu, herritarrak etxeko traineruekin eta kamiseta horiarekin oso identifikatuta sentitzen direlako. Halere, argi dugu aldaketa onerako izan dela; logotipo zaharraren jarraipena da oraingoa, ez dago hausturarik".

Euskara hutsean

Zaharrenekin konparatuz gero, baditu zenbait moldaketa

logotipo berriak; euskara hutsean egin dute, eta hori da berritasun nagusietako bat. "Kendu egin dizkiogu CRO inzialak, gaur egun ez zaizkigulako beharrezkoak iruditzen. Erabateko presentzia eman nahi izan diogu euskarari. Guretzat, arrauna eta euskara eskutik helduta doaz".

Aldaketekin jarraituz, zutik zeuden bi arraunak kendu egin dituzte logotipo zaharretik, eta goiko aldean, erdian, egin zaie tokia Olinpiar Jokoetako uztaiei, "elkartearen bereizgarrietako bat" direla irizita. Orokorrean, "borobiltasuna" eman nahi izan diote itxura berriari: "Mirotzak lehendik bazuen borobil itxura hori, estrapuak borobilak dira, ziaboga borobilean ematen da, Oriok bi o hizki ditu..."

Elkartearen eta herriaren betiko izaera mantendu dugu, logotipoari jantzia berrituta". Sukia oso eskertuta agertu da Iñigo Gaztañazpi eta Gabri Alonso egileekin, "lanerako erakutsi duten borondateagatik". ■■■



*Aprobetxatu martxoan ditugun sofa likidazioa. PASA eta IKUSI
Ez galdu aukera paregabe hau*



Estrata 3. Pab. Errasti (Aginaga Auzoa) 20170 USURBIL
Tel./FAX-a: 943-36 93 59 · Mugikorra: 676 35 56 35
mueblesaguinaga@mueblesaguinaga.com

45+
INDARTZEN



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

**45 URTEK GORAKO HERRITARRAK LAN-MUNDUAN
TXERTATZEKO 40 ORDUKO PRESTAKUNTZA
MAIATZAK 3-14**

↓
4. EDIZIOA






INFORMAZIO SAIOA ONLINE
(GoToMeeting)
Apirilak 14, asteazkena
11:00etan

ARGIBIDEAK ETA IZEN-EMATEA

Epe-muga: Apirilak 21

943-89 08 08 / lanpoltsa@urolakosta.eus



Espezie Festa

Ez dakigu zientzialari pitzatua den ala gezurti ikaragarria, baina zoro honek espezie berriak sortu omen ditu. Nola? Abereak abereekin nahasiz eta inork ulertu ez dituen formula matematiko genetiko labirintikoen bidez, aizue. Batere kolorerik gabeak atera zaizkio, ordea. Margotu itzazu zuk.



Itzalak


Lotu itzal bakoitzari bere izena.

Sudokua



Zein ederra den udaberria!

- 1 zenbakiz seinalatu dugun hori landarearen kimua da eta albokoa,
- 2 zenbakiz seinalatu duguna, gauza bera, baina txikiagoa. Bete itzazu lauki zuriak KIMUTXOA hitza osatzen duten hizkiez (K, I, M, U, T, X, O eta A). Letra bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.




ZENBAT TXORI IKUSTEN DITUZU IRUDIAN?

Engainariak



Hamarrekoa

Aurkitu zientzialariaren eta bere ispiluko irudiaren artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



Lau zatietatik bi irudi handitik hartuta daude eta beste biak engainariak dira, hau da, oso antze-koak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.

Ordena itzazu botak handienetik (1) txiki-enera (6) eta ondoren

Handitik txikiara

- 1: urdin ilunez eta horiz.
- 2: laranja eta urdin argiz.
- 3: Berdez eta arrosaz.
- 4: morez eta grisez.
- 5: marroiez.
- 6: gorriz.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabanentzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Tel. 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko kalen. Tel. 690 27 28 42.

LAN BILA

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel. 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel. 641 44 60 70.

Ettxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel. 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel. 602 08 98 86.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com.
Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanta. Tel. 643 85 78 54.

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako deitu honako telefono zenbakira: 697 65 05 19.

Ingeleseko klase partikularrak emateko prest nago. 20 urteko neska oriotarra naiz, ordutegi malgua daukat. Tel. 690 06 63 11.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte asegurua ordaindu du. 3.500 euro. Tel. 657 77 45 11.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel. 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel. 657 71 96 14.

Bigarren eskuko mountain bike bizikleta erosiko nuke. Interesatuek, idatzitako edo deitu KARKARARA.

MAILAN (Tren-geltoki atzealdean). Jantokiko antzinako altzariak, kaobazkoak, kalitate handikoak. Aukera ona. Deitu: 943-89 03 45 edo 669 78 19 63.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilargia
1	07:47 eta 20:08	01:29 eta 13:54	☾
2	08:35 eta 20:58	02:16 eta 14:41	☾
3	09:31 eta 21:58	03:08 eta 15:35	☾
4	10:43 eta 23:19	04:12 eta 16:45	☾
5	12:23	05:35 eta 18:17	☾
6	00:53 eta 13:53	07:11 eta 19:46	☾
7	02:13 eta 15:01	08:28 eta 20:51	☾
8	03:11 eta 15:48	09:22 eta 21:38	☾
9	03:56 eta 16:24	10:03 eta 22:17	☾
10	04:34 eta 16:56	10:39 eta 22:52	☾
11	05:07 eta 17:25	11:11 eta 23:25	☾
12	05:37 eta 17:52	11:41 eta 23:57	☾
13	06:07 eta 18:19	12:11	☾
14	06:36 eta 18:47	00:28 eta 12:40	☾
15	07:06 eta 19:15	00:58 eta 13:09	☾
16	07:37 eta 19:46	01:30 eta 13:39	☾
17	08:11 eta 20:21	02:03 eta 14:12	☾
18	08:52 eta 21:05	02:41 eta 14:51	☾
19	09:46 eta 22:07	03:30 eta 15:44	☾
20	11:05 eta 23:35	04:38 eta 17:01	☾
21	12:40	06:08 eta 18:36	☾
22	01:04 eta 13:54	07:30 eta 19:50	☾
23	02:11 eta 14:49	08:29 eta 20:45	☾
24	03:03 eta 15:34	09:17 eta 21:31	☾
25	03:48 eta 16:15	10:00 eta 22:14	☾
26	04:32 eta 16:45	10:42 eta 22:57	☾
27	05:15 eta 17:38	11:23 eta 23:41	☾
28	05:59 eta 18:20	12:06	☾
29	06:45 eta 19:04	00:26 eta 12:49	☾
30	07:32 eta 19:52	01:13 eta 13:35	☾

FARMAZIAK-APIRILA

ZARAUTZ

14 eta 20. ETXEERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98

8, 9, 15, 21, 24, 25, 26, 27, 28 eta 30. GALLO: Zigorria kalea, 17

/ 943-13 40 19

23 eta 29. GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19

1, 2, 3, 4 eta 5. IRIARTE: Zinkunegi, Pilarxo Enea / 943-13 29 70

7, 13 eta 19. ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70

6 eta 12. LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14

10, 11, 16 eta 22. REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83

17 eta 18. ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

AGENDA

ORIO

APIRILAK 16 OSTIRALA

Musika emanaldia: Testura taldea.
Sarrerak: 2€.
Arraunetxen, 19:00etan.

APIRILAK 25 IGANDEA

Haurrentzako ekitaldia: *Kantu kolore.* Sarrerak: 10€.
Karela kiroldegian, 18:00etan.

APIRILAK 30 OSTIRALA

Kantaldia: Maria Rivero abeslaria,
Parentesiak. Sarreak: 2€.
Arraunetxen, 18:00etan.

AIA

APIRILAK 10 LARUNBATA

Kontzertua: Iker Lauroba eta Beste
Urtaroak taldea. Sarrerak: 8-10€
Aiako Probalekuan, 19:00etan.




XIXARIO
Erretega
Txuleta eta arrainak
parrillan

Eusko Gudarien kalea 2 · ORIO · 943-83 00 19



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA **2-16**
943-89 92 43
012137aa@hezuntza.net



Garraio frigorifikoa Nazionala eta Nazioartekoa



ibilbideak



generoa



garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO

943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Puntua jarrita

Joseba Pagadizabal
(Doinua: Donostia alde
honetan)

1
**Kontxara begiratzuz
aurten ondo al gaude?**

Galdera seriyua
bota dezu haure.
Kontrariyo asko eta
danak onak daude.
Aurten egingo gera
bi banderan jabe!

2
Hiru traineru gabiltz
entrenatu nahian.
Mutilak eta neskak
jo ta su ibaian.
Aurtengo udara hau
helden den garaian.
Herrin degu bandera bat
bestean jarraian!

3
Horiz jarri balkoiak
ta jantzi norberak.
Larri izango dira
aurtene bazterrak.
Urte osoko lanak
emaitza ederrak.
Irabaziko ditugu
Kontxako banderak!

Hurrengo bertsolaria:

Iñaki Alkain.

Puntua:

Bate basurderikan
ehizatzen al dezu?

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Joseba Pagadizabalari jarri dio puntua Gontzal Aldaiek: "Kontxara begiratzuz aurten ondo al gaude?". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



ZORIONE MENDEZ MARTIN

**Parrila
pizteko
irrikitan...
Laster gara
zuekin!**



BODEGON
Sarasua



info@bodegonsarasua.es
Erreserbak: 943-83 00 05